PAISAIAREN ERALDAKETAREN ATZEAN DAUDEN INDARRAK IDENTIFIKATZEKO FITXA

Fitxa hau bertatik bertara betetzeko pentsatua dago, ez paisaia baten argazki batetik abiatuta. Bere xedea honakoa da: edonork paisaia jakin baten eraldaketarako eragileen inguruan gogoeta egin dezan laguntzea, inolako ezaguera tekniko berezirik izan gabe[1].

Orrialde honek fitxa betetzeko **azalpenak** ditu, eta **bigarren orrialdeak fitxa** bera.

Aurreko jardueran paisaiaren osagaiak analizatzeko fitxan eman ditugun erantzunak kontuan hartuta, **paisaian pisu gehien duten elementuak** aukeratuko ditugu (adibidez, nagusienak direnak, ikusgarrienak, azalera handiena hartzen dutenak, edo deigarrienak direnak) eta fitxaren ezkerreko zutabean zerrendatuko ditugu, deskribapen motz batekin batera.

Fitxaren eskuinaldean **faktoreen** zerrenda bat ikusiko dugu, eta elementu bakoitza faktore bat edo gehiagorekin lotuko dugu gezien bidez. Ondoko galderek arrastoak emango dizkigute elementu bakoitzari lotutako faktore edo faktoreei buruz: **zer dela eta** dago elementu hori paisaian? zein faktorek **baldintzatzen** ditu gehien elementuaren **ezaugarriak** edo bere **itxura**?

Lehen lau faktoreak (klima, geologia/erliebea, hidrologia, biologia) **naturaren** indarrak dira, eta **gainontzeko** faktoreak **gizakiak** eragindakoak dira.

"**Teknologia**" izeneko faktoreak elementu jakin bat paisaian ipini zeneko teknologiari egiten dio erreferentzia. Adibidez, oraindik ere euskal landa-paisaia batzuetan ikus daitezkeen karobiek garai jakin bateko teknologiarekin dute zerikusia, lurren emankortasuna areagotzeko haien pHa aldatzeko ezagutzen zen teknologia kareharria tenperatura altuan egostea baitzen karea ekoizteko. Ongarri kimikoak ekoizteko teknologia garatu zenean, karobiek haien funtzioa galdu zutenez, gure paisaietatik desagertzen joan dira. Antzeko zerbait gertatu da errotekin, edo burdinolekin. Hiriko paisaietan, hiria ingurune dinamikoagoa eta aldakorragoa denez, elementu zaharkituak azkarrago ordezkatu ohi dira, tokiko ondarearen parte direlako kontserbatzeko erabakia hartzen ez bada, behintzat (pentsa, adibidez, Segoviako akueduktua).

Kontuan izan behar da **paisaiaren elementu batzuk faktore bat baino gehiagori lotuta egon daitezkeela**; adibidez, errepidea demografiari lotua egongo da (herriak haien artean lotzeko balio du, jendea bizi den tokietara iristeko), baina geomorfologiari lotuta egongo da ere (erliebea aztertuta, ibilbiderik egokiena aukeratuta eraikia izango da), baita teknologiari ere (Erdi Aroko galtzadak beti bilatu beharko ditu malda arinagoak, egungo hormigoizko bideak muga teknologiko hori ez duen bitartean). Faktore bat baino gehiago daudenean, **nagusia aukeratuko da** (bat, edo bi gehienez).

[1] Lan hau ondoko lizentziak babesten du: Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0. Fitxa hau Miren Askasibarrek egin du, aurretik PAISAIA enpresan burututako lan batetik abiatuta.

Fitxa bete dutenen izen-abizenak:
Data:
Tokia:
PAISAIAREN ERALDAKETAREN INDARRAK

Elementua	**Deskribapen motza**		**Faktoreak**
			Klima
			Geologia / erliebea
			Biologia (izaki bizidunak)
			Hidrologia
			Ekonomia
			Demografia / soziologia
			Teknologia
			Kultura